

# MITUSU

BIZKAIKO HAURRENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS DE BIZKAIA

Ciclo Tiempo Teatral 2023 *Antzerki Denboraldia*

**Material Pedagogikoa**


**BALTASAR JAUNAREN ANIMALIAK**

*Dirulaguntzaileak / Patrocinan*



*Laguntzaileak / Colaboran*


*Asociada a / Bazkidea*



teatro  
teloncillo

# LOS ANIMALES DE DON BALTASAR

KOADERNO DIDAKTIKOA





# DON BALTASARREN ANIMALIAK

Beatriz Actis-en "*Fabula*" ipuinean oinarrituta

[www.teloncillo.com](http://www.teloncillo.com) | [teloncillo@teloncillo.com](mailto:teloncillo@teloncillo.com)



EL ABANICO  
GRUP DE DIDÀCTICA DE TEATRE

Honako honen proposamen ludiko-didaktikoa:

**El Abanico** (Víctor Latorre, Francesc J. López, Mario Máñez eta Pilar Martínez)

# IRAKASLEAREN KOADERNOA

## SARRERA

**"Irudimena ez da gezurra"**

(Daniel Pennac, "Messieurs les enfants")

Koaderno honekin, lanerako tresna bat eskaini nahi zaie irakasleei, ikasleentzat esperientzia bat izan dadin antzerkira joatea, eta, horren bidez, ezagutzak barneratu ditzaten eta pertzepziorako eta sormenerako gaitasuna garatu dezaten.

**Don Baltasarren animaliak** lana tresna egokia da, haurrak artearen, gogoetaren eta emozioen munduarekin konektatzeko. Gainera, hizkuntzen aniztasuna (batez ere, ahozkoak ez diren hizkuntzena) lantzeko, behaketarako, bidaiak bizitza deskubritzeko modu gisa ulertzeko eta abarretarako elementuak eskaintzen ditu, eta, batez ere, "gauzak" deskubritzen lagundu diezaguke.

Koaderno honetan proposatzen ditugun jarduerak antzezlanak ikusi ondoren egiteko pentsatuta daude, antzezlan bat ikustera joateak ikasleengan sortzen duen motibazioa aprobetxatuz. Jarduera horien bidez, ikuslearen irudimena eta sormena garatu nahi ditugu. Antzezlan hau adin desberdinetako haurrei zuzentzen zaienez, **irakaslea arduratuko da horiek aukeratzeaz, zuzentzeaz eta bere ikasleei egokitzeaz**. Horrela, adibidez, ahozkoak direnak eta, beraz, adin txikiagoko ikasleentzat egokienak direnak idatziak izan daitezke ikasle nagusientzat, eta alderantziz.

Halaber, ondo entzuten jakitea garrantzitsua dela eta antzerkira joan aurretik ikuslea hezi egin behar dela gogoratzea gustatuko litzaiguke. **ANTZOKIRA JOATEKO PRESTATZEN** atalean dagoen "Ikusle onaren dekalogoaren" bidez, ikasleek antzokira joateak adierazten duen ekintza sozialari buruz hausnartu dezaten nahi dugu.



# AURKIBIDEA

## 1.- DOKUMENTAZIOA

- 1.1.- Sinopsia.
- 1.2.- Ikuskizuna.
- 1.3.- Konpainia.
- 1.4.- Fitxa artistikoa eta teknikoa.
- 1.5.- Webgune interesgarriak.

## 2.- ANTZOKIRA JOATEKO PRESTATZEN

- 2.1.- Ikusle onaren dekalogo

## 3.- ANTZEZENAREN ONDOREN EGITEKO JARDUERAK

- 3.1.-Ikusi dudana azalduz.
- 3.2.-Zer gustatu zaidan gehien eta zer gutxien.
- 3.3.-Bala-bala.
- 3.4.-Geure buruari galdezka ikusi dugun antzezlanari buruz.
- 3.5.-Zinta bat ez da zinta bat soilik.
- 3.6.-Agurra.
- 3.7.-Semaforoa eta zirkulazioa.
- 3.8.- Kaxa magikoa.
- 3.9.-Ni Don Baltasar naiz; zu, berriz, txakurra.
- 3.10.-Animalien festa.

## 4.- URRUNAGO JOATEKO

Antzerkia egingo dugu

- Testuaren irakurketa, soinuen laguntzarekin.
- Abenturak inprobisatzen



# 1. DOKUMENTAZIOA

## 1.1 Sinopsia.

**Don Baltasarren animaliak** lanak gizon baten istorioa kontatzen du. Marruka ari den katu batekin, miauka ari den txakur batekin, kua-kua egiten duen behi batekin eta zaunka egiten duen ahate batekin topo egiten du gizonak, eta haiekin bidaia bat egitea erabakitzen du.

## 1.2 Ikuskizuna.

**Don Baltasarren animaliak** hitzik gabeko ikuskizuna da, eta onomatopeiak, irudiak eta musika dira protagonistak. Nolabait, *Hugo Friedrich-ek poesia modernoari buruz egindako ikerketetan* ateratako ondorioak berresten ditu antzezlanak: "Poesia horren zentzua, batez ere, eta beste arrazoi batzuen artean, hizkuntzaren magiak eta irudimenak adierazten dute, edukiak baino zirrara handiagoa eragiten duen sonoritateak erabat menderatutako esfera batean."

3 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat pentsatutako ikuskizuna da; ikuskizunean, hurrei erakargarriak egiten zaizkien gaietan murgilduko gara: animalien mundua, garraiobideak, koloreak, hizkiak eta abar. Eta hori guztia, umorez eta jolasez betetako esparru batean.

Komunikazioaz hitz egingo dugu, eta loturak sortzeko dauden milaka moduez ere bai. Hizkuntza komunik ez izan arren, bestearen bihotzera ere irits gaitzkeela ikusiko dugu. Hitzik gabeko komunikazioan aditu direnek garbi esaten dute bi gizaki aurrez aurre jartzen direnean maila askotan komunikatzen direla aldi berean, kontzienteki eta inkontzienteki, eta zentzumen gehienak erabiltzen dituztela horretarako. Eta, gero, sentsazio horiek guztiak deskodetze-sistema baten bidez integratzen dituzte, batzuetan "seigarren zentzua" esaten diogun horren bidez: intuizioa.

Identitateaz pentsatzeko antzezlan bat da, nor garen eta nolakoak garen pentsatzeko antzezlan bat, eta geure buruari eta besteei begiratzeko dugun gaitasunaz hausnartzeko ere balio du.

## 1.3 Konpainia.

1975ean jaio zen **Teloncillo** antzerki-konpainia. Garai hartan, askotariko lanak egiten zituen; alde batetik, helduentzako muntaiak egiten zituen, hala nola Jordi Teixedor-en *El Retablo del Flautista*, José Ruibal-en *El Hombre y La Mosca*, Maiakosky-ren *Misterio Bufo*, Severo Sarduy-ren *La Playa* edo Joan Brossa-ren *La Ganchitud*. Eta bestalde, hurrei zuzendutako antzezlanak zituzten: "Ensalada de Bandidos", "América no existe y otros cuentos chinos" edo "Juanbobo".

Baina duela urte batzuetatik, 1996tik zehazki, haurrentzako eta familientzako ikuskizunak ditu soilik errepertorioan **Teloncillok**. Adin eta ziklo desberdinetara zuzenduta daude guztiak, eta hainbat gai eta antzerki-teknika jorratzen dituzte; zuzeneko musika eta abestiak txertatzen dituzte muntaia batzuetan, eta, beste batzuetan, testua eta aktore-lana soilik erabiltzen dituzte.

#### 1.4 Fitxa artistikoa eta teknikoa.

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Claudio Hochman**,  
**Beatriz Actis-en "Fábula"** ipuinean oinarrituta  
Antzezleri-zerrenda: **Silvia Martín, Juan Luís Sara eta Javier Carballo**

Eszenografiaren diseinua eta jantziak: **Isidro Alonso**  
Eszenografiaren errealizazioa: **DYCAE**  
Diseinu grafikoa: **Ideacrónica**  
Argiztapenaren diseinua: **Carmen San Román/Platea Espectáculos**  
Musika: **Bill Frisell, Steve Turre eta Carl Orff**  
Zuzendaritzako laguntzailea: **Ángel Sánchez**  
Ekoizpena eta jantziak: **Ana Gallego**  
Banaketa: **Valle Sara Nieto**  
Administrazioa: **Marta Pérez Madera**

Gomendatutako edukiera: **200/300 ikusle**.

Formatua: **ertaina**.

Gomendatutako adinak: **3 urtetik 6 urtera bitarteko haurrak, ikasleak eta familiak**

Iraupena: **50 minutu**

#### 1.5 Webgune interesgarriak.

[www.childtopia.com](http://www.childtopia.com) Diseinu erakargarria duten 1.400 joko hezigarri baino gehiago daude eskuragarri, adin-tarteen arabera sailkatuta. Eta baita eskulanak eta marrazkirako praktikak ere. Hainbat hizkuntzatan guztiak.

[www.dinosaurio.com](http://www.dinosaurio.com) Gune honetan, hurrek jolas egin, ipuinak irakurri, eskulanak eta beste hainbat gauza egin ahal izango dituzte. Aholku garrantzitsuak eskaintzen dizkie gurasoei, eta baita askotariko ideiak ere irakasleei, laguntza didaktiko eta anekdota interesgarriekin.

[www.educalandia.net](http://www.educalandia.net) Hezkuntza-baliabideen webgunea, 3 urtetik 12 urtera bitarteko haurren ikaskuntzan laguntzeko.

# 2. ANTZOKIRA JOATEKO PRESTATZEN

## 2.1 Ikusle onaren dekalogo

Antzokian, beste edozein ikuskizunetan bezala, bada portaera-kode bat, hau da, denok ezagutu eta errespetatu beharreko arau batzuk daude. Etxean edo familian telebista ikusten ari garenean eta beste pertsona batzuek inguratuta zuzeneko ikuskizun batean gaudenean, ez dugu portaera bera izaten.

Egin denon artean arbelean zuen ustez errespetatu beharrekoak diren portaera-arauen zerrenda:

Kopiatu arau horiek zuen koadernoan, edota hitz egin horiez; ondoren, konparatu horiek irakasleak emango dizuen *Ikusle onaren dekalogoarekin*. Bat datoz?

Ez ahaztu praktikan jartzea!

### Ikusle onaren dekalogo

1. Lehenik, **jaso informazioa ikustera zoazten ikuskizunari buruz**. Batzuetan, batak imajinatzen duena ez dator bat errealitatearekin.
2. **Garaiz iritsi behar duzue**. Joan gutxienez 15 minutu aurretik; horrela, zuen eserlekua aurkitzeko denbora izango duzue, inor molestatu gabe.
3. Ikuskizuna hasten denean, **ezin duzue eserlektutik mugitu**. Komunera joan behar baduzue, joan ikuskizuna hasi aurretik.
4. Ezinbestekoa da isiltasuna, aktoreek zuentzako lan egiten baitute. **Ez iezaiezue arreta galarazi zuen iruzkinekin**.
5. **Kontuz doministikekin eta eztulekin**, aktoreak eta gainerako ikusleak molesta ditzakezue.
6. Aktoreak errespetatu egin behar dira, eta, beraz, **ezin da antzezpen-garaian jan**. Pipak eta goxokiak gorde beste une baterako.
7. Antzezlanana ez baduzue gogoko, ez molestatu gainerako kideak, ikusten ari diren ikuskizuneari interesa izan baitezakete.
8. Larrialdi bat dela eta, aretoa utzi beharra izan dezakezue. Kasu horretan, **saiatu zaratarik gabe** eta gainerakoak molestatu gabe **irteten**.
9. Ikuskizunaren sortzaileek eta aktoreek ahaleginak egin dituzten arren antzezlanana gustatzen ez bazaizue, **isilik egon behar duzue zuen eserlekuan**, publikoari eta antzezpena posible egin duten guztiei zor zaien errespetuagatik.
10. **Txalo zaparrada da aktoreek jaso dezaketen saririk onena**, ez txistu eta oihuak, une atsegina pasarazi baitigute.



# 3. ANTZEZPENAREN ONDOREN EGITEKO JARDUERAK

## 3.1. Ikusi dudana azalduz

**Don Baltasarren animaliak** antzezlana ikusi ondoren, jarduera dibertigarria izan daiteke ikusitako istorio politaren haria denon artean berreraikitzen saiatzea; ikasleei gogorarazten lagunduko die, eta, agian, baita oroimenean dituzten une eta alderdi interesgarriak berreskuratzen ere.

Txikienekin, hiru edota lau urteko haurrekin, eskularruzko txotxongilo pare bat izanez gero, irakasleek panpinak erabiliko dituzte galderak egiteko, hurrek modu dibertigarrian eta antzerki-giroan erantzun eta gogoratu ditzaten.

- Horrela, adibidez, panpinak hauxe esango die:  
*Aizue, aizue, antzezlan dibertigarria ikusi duzuela esan didate. Ez ninduzuen zuekin eraman... ea, tira, kontatu, kontatu. Gustatu zitzaizuen? Nor ageri zen? Don Baltasar? Eta nor gehiago? Katua! Eta, zer gertatu zitzaion?... etab.*
- Zaharragoekin, antzeko zerbait egingo da, irakaslearen laguntzarekin.

Antzezlanaren kontakizun posible bat proposatzen dugu, gida moduan:

*Ikusi dugun antzezlanean, hiru lagunek animaliekin topo egiten dute.*

1. *Gogoratu zeintzuk diren: .....*
2. *Oso animalia bereziak dira, .....-lako.*
3. *Horietako batek ez du soinurik egiten, ..... da.*
4. *Hiru lagunek hainbat objektuekin ere jolas egiten dute: .....*
5. *Era askotara erabiltzen dituzte. Adibidez, .....*
6. *Animaliaren bat, bere espeziekoekin elkartzean, baztertua izaten da, .....-lako.*
7. *Baina Don Baltasarrek ..... bat osatzen du guztiekin.*
8. *Itsaso bat ere osatzen dute, eta Don Baltasarrek ..... batean sartzen ditu animalia guztiak.*
9. *Azkenik, beste animalia bat aurkitzen dugu. .... bat da, eta ..... gisa abesten du. Don Baltasarrek bere ..... sartzen du hori ere ..... Horrela, animaliek guztien soinuak ikasten dituzte, eta pertsonen moduan ..... esatea ere lortzen dute.*
10. *Guztiak lagun egin direnean, Don Baltasarrek ..... eramaten ditu.*


Ikusi dugun bezala, bakoitzak soinu desberdina egin arren, elkar ulertzen dute guztiek, eta elkarrengandik ikasi dute.

## 3.2.-Zer gustatu zaidan gehien eta zer gutxien.

Ikusi duten antzezlanari buruz hurrek zer iritzi duten jakitea da helburua. Horretarako, irakasleak galderak egingo ditu:

- Gehien gustatu zitzaidana ..... izan zen.
- Gutxien gustatu zitzaidana ..... izan zen.
- Dibertigarriena ..... izan zen.
- Aspergarriena ..... izan zen.
- Animaliarik sinpatikoena ..... izan zen.
- Animaliarik takarrena ..... zen.
- Musikarik politena ..... zenean entzuten zena izan zen.
- Pertsonaia bat aukeratu beharko banu, ..... aukeratuko nuke.
- "Hizketan" dibertigarriena ..... izan zen.

Amaieran, emotikonoak marraztuko dira arbelean, eta ikasle bakoitzak antzezanari buruz duen iritzia egokien laburbiltzen duena aukeratuko du:



### 3.3 Bala-bala.

Antzezanean, pertsonak ez dira hizkuntza batean mintzo; "**bala-bala**" errepikatzen dute une oro. Eta hala ere, zer esan nahi duten ulertzen da. Eta hori pertsonaiek egiten dutenari eta erabiltzen duten tonuari esker da.

- Ikasleek, binaka, ondorengo elkarrizketa prestatuko dute, eta "bala-bala" onomatopeia soilik erabiliko dute. Keinuak izugarri esajeratu beharko dituzte, eta onomatopeiak muturreraino eraman beharko dituzte.

- *Hola! Zer moduz?*
- *Ni oso ongi. Eta zu?*
- *Ongi. Nora zoaz?*
- *Bazkaltzera noa. Bazatoz?*
- *Bai.. Zurekin noa.*
- *Goazen bada.*

- Ondoren, ikaskideen aurrean antzeztuko dute. Amaieran, ondoen egin dutenak aukeratuko dira.
- Irakasleak ere hainbat elkarrizketa labur asmatu ditzake, eta ikasleei esan antzezteko; kasu horretan, gainerako ikaskideek ez dute jakingo zer esango duten. Amaitutakoan, elkarrizketa bakoitzean zer esan den adieraziko da.

### 3.4.-Geure buruari galdezka ikusi dugun antzezanari buruz.

Ada Yonath-ek (Kimikako Nobel saria, 2009) hauxe dio, duela gutxi egunkari baterako egin zioten elkarrizketa batean: *"Inoiz ez nuen pentsatu zientzialaria izatea; txikitan, gauzak ulertzea gustatzen zitzaidan, eta galderak egiten nizkion neure buruari; dena jakin nahi nuen, zientzia lanbide bat izan zitekeela jakin baino askoz lehenagotik"*.

Gai baten inguruan hipotesiak egitea ikasleentzat motibagarria izan daitekeen jarduera bat da. Hipotesiak egiteak pentsarazi egiten die, eta aztertzeko eta hausnartzeko duten gaitasuna areagotzen du; gainera, irudimena askatzen du, eta, beraz, sormen handiko jarduera da.

- Antzezlanean agertzen diren antzerkiko ikur eta proposamen nagusien esanahi posibleen zerranda denon artean egitea proposatuko dugu.

***Kontuz! Hipotesi guztiak dira baliagarriak, eta beti egon daiteke besteren bat. Huts egiteko prest ez bagaude, ez dugu inoiz ezer originalik asmatuko.***

1. Zergatik daukate hizkuntza aldatuta antzezaneko animaliek? Katuak marru egiten du, txakurrak miau egiten du, ahateak zaunka egiten du eta behiak kua-kua esaten du.
2. Zergatik esaten dute pertsonaiek bala-bala soilik?
3. Zergatik ez du hitz egiten jirafak?
4. Etab.

### 3.5.-Zinta bat ez da zinta bat soilik.

Bai, objektu batek beste objektu ugari ditu gordeak bere baitan. Nahikoa izango da gure irudimenaren begiekin begiratzea.

***Don Baltasarren animaliak*** antzezlanean, zinta urdin bat errepide bihurtzen da, animaliek bizia hartzen dute Don Baltasarren eta haren lagunaren ekintzei esker, eta denek egurrezko itsasontzi batean bidaiatzen dute, kartoi urdinez egindako itsaso baten gainean...

- Jar dezagun dibertsio-izpi bat gure bizitzan:
  1. Biribilean ezarriko gara, eta gutako batek objektu bat hartuko du. Adibidez, arkatz bat. Beste gauza bat izango balitz bezala erabiliko du; esaterako, orkestrazuzendariaren batuta izango da. Horretarako, biribilaren erdian kokatu, eta gezurrezko orkestra bat zuzenduko du.
  2. Ondoren, bere lekura itzuliko da, eta lagunari emango dio objektua; lagun horrek beste erabilera bat emango dio objektuari, eta horrela egingo dute gainerako ikaskideek ere.
  3. Gauza bera egingo dugu eskura ditugun beste objektu batzuekin (liburua, paperzorroa, aukia, klera zatia, pilota...)

### 3.6. Agurra

Hizkuntzek ez dute oztopo izan behar guk elkar ulertzeko. Alderantziz, hitz bat hizkuntza ugaritan jakiteak aberastu egiten gaitu.

Hainbat hizkuntzatan agurtuko dugu elkar. Irakleen etxeetan eta gure munduan oso garrantzitsuak diren guztietan gutxienez.

- Ausaz galdetu dezakegu: *Nork daki ingelesez agurtzen? Eta italieraz? Eta .....?* (ikasgelan dauden nazionalitateak erabiliko ditugu: txinatarra, errumaniarra, etab.)
- Orain, denok ikasteko ordua da, eta, horretarako, irakasleak edota ikasgelako ikasle atzerritarrak esango duen agurra elkarrekin errepikatuko dugu:

Hona hemen iradokizun batzuk:

Gaztelania: **Hola!**

Katalana: **Hola!**

Ingelesa: **Hellow!**

Frantseza: **Salut!** (t ahoskatu gabe)

Portugesas: **Oi!**

Italiera: **Ciao!**

Euskara: **Kaixo!**

Mandarin-txinera: **Ni Hāoi** (Nee HA-oh)

Kantonera: **Nei Ho!** (Nee How)

Arabiera: **Salaam- aleykum!**

Poloniera: **Dzien dobry!**

Ukraniera: **Pryvit!**

Errusiera: **Priviet!**

Alemana: **Hallo!**

Errumaniera: **Buna Ziua!**

Irakasleak aukeratuko ditu hizkuntzak, eta iradokitakoez gain beste hizkuntza batzuk ere landuko dituen erabakiko du.

### 3.7.-Semaforoa eta zirkulazioa.

Antzezlanean, bidaiari zehar, animaliak gidatzen dituzten zirkulazio-seinaleak ageri dira.

- Zer seinale gogoratzen dituzu? Marraztu ditzakezue? Zer adierazten zuten?

Semaforo bat ere ageri da antzezlanean.

Semaforoak hiru kolore erabiltzen ditu: gorria, horia eta berdea.

- Zer egin behar dugu semaforoak kolore horiek dituenean?
- Ondoren, zirkulazio-jolas bat egingo da:

Irakasleak hiru kartoi mehe izango ditu (gorria, horia eta berdea). Hasieran, ikasle guztiak errepide batetik doazen itxurak egingo dituzte. Irakasleak kolore horiko kartoi mehea ateratzen duenean, guztiak abiadura motelduko dute. Gorria ikustean, guztiak gelditu egingo dira. Eta berriro abian jarriko dira, irakasleak kartoi mehe berdea ateratzen duenean.

- Zirkulazioa.

Honako hau kontuan hartuta:

- Seinale trianguluar eta gorriek debekua esan nahi dute.
- Seinale urdin eta angeluzuzenek, argibidea.
- Seinale urdin eta biribilek, betebeharra.
- Zer adierazten dute honako seinale hauek?



ZER ADIERAZTEN DU?




ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?

Beste seinalerik ezagutzen duzue? Zeintzuk? Marratzu arbelean, eta azaldu esanahia gainerako ikaskideei.

## Arrisku seinaleak

Seinaleak ez dira zirkulaziorako soilik erabiltzen; ikastetxeetan, ospitaleetan, janari-ontzietan, elektrizitate-zutoinetan eta abar aurkitu ditzakegu... Seinalez inguratuta gaude. Horietako askok hainbat arriskuren berri ematen dute, eta jakin egin behar da zer esan nahi duten.



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?



ZER ADIERAZTEN DU?

### **Asmatu seinale bat**

Ikasleek zirkulazio-seinale bat asmatuko dute; marraztu egingo dute, eta zer adierazten duen eta noiz erabili behar den azalduko dute.



### **Ikasgelako seinaleak**

Ikasgelatik "zirkulatzeko" seinaleak asmatu ditzakegu.

Horretarako, kolore horia, urdina eta gorria erabiliko dira, adierazi nahi denaren arabera (arriskua, argibidea, debekua). Eta dagokion forma erabiliko da (biribila, triangeluarra, angeluzuzena).

Lehenik, ikasgela batean behar diren seinaleen zerrenda bat egin daiteke. Adibidez:

- Isilik
- Hitz egiteko txanda eskatu
- Ez altxatu baimenik gabe
- Irakurri
- Margotu
- Entzun
- Kasu egin
- Etab.



### 3.8. Kaxa magikoa

Hiru urtetik sei urtera bitarteko hurrek ez dute laguntzarik behar izaten beren irudimenarekin pertsonaiak eta espazio eszenikoak sortzeko, benetako nahiz gezurretako edozein estimulatik abiatuta.

- Bete kartoizko kaxa handi bat objektu txikiz; saiatu jostailurik ez sartzen. Sartu kaxan, esaterako, oihal edo zapi txikiak, eskularruak, etxeko bilgarrien kartoizko biribilki txikiak, aluminiozko paperez bildutako kartoizko erretilutxoak, plastikozko ontziren bat, hariak, soka txikiak, kaxa hutsak.
- Txandaka, objektu horiek jolasteko balioko dieten objektu fantastiko bihurtzeko gonbita egingo zaie.
- Lehenengo boluntarioari honako hau esango zaio, adibidez: "Sartu eskua jostailu sorginduen kutxan. Har ezazu objektu bat, uki ezazu, pentsa ezazu zer izan daitekeen, atera ezazu, eta aurkeztu zure ikaskideei, ..... -t(z)eko balio duen aparteko jostailu gisa.

Haurrak txandaka aterako dira, jostailua aukeratuko dute, aurkeztu egingo dute; eta denek beren jostailua dutenean, gelan bere kasa jolasten utziko diegu.

### 3.9. Ni Don Baltasar naiz; zu, berriz, txakurra

Binaka, jolas dramatikoaren esparruko zenbait istorio txiki asmatuko ditugu, eta, agian, amaierarik gabeko istorio bat sortuko dugu.

1. Biribilean eseriko gara guztiok. Taldeko norbaitek esango du:
  - "Ni ..... naiz" (bihurtu nahi duen pertsonaia esango du).
  - Gero, beste bati esango dio: "Eta zu, berriz,.... (hemen, zer gauza edo pertsonaia bihurtuko duen esango du)
2. Bikote bakoitzak bere irudimenaren laguntzarekin jolastxo bat sortu ahal izango du. Inprobisaziorako denbora? Minutu bat, dinamikoa izatea eta guztiok jolasteko aukera izatea nahi baita.

Interesgarria litzateke bi pertsonaiek elkarren arteko loturaren bat izatea, baina beste proposamen batzuk ere onartuko dira. Adibidez:


- "Ni Don Baltasar naiz; zu, berriz, jirafa"
- "Ni Don Baltasar naiz; zu, berriz, behia"
- "Ni itsasontzia naiz; zu, berriz, olatu erraldoia"
- "Ni ehiztaria naiz; zu, berriz, untxia"
- "Ni dragoia naiz; zu, berriz, galduta dagoen haurra"
- "Ni polizia naiz; zu, berriz, koadro bat lapurtu duen lapurra"
- "Ni ... naiz; zu, berriz,..."

### 3.10.-Animalien festa.


Iritsi da **animalien festa** prestatzen hasteko unea. Ikasle bakoitzari zer animalia gustatzen zaion gehien eta zergatik galdetu ondoren (zer animalia ezagutzen duzue ongi?, etxean baduzue halakorik?, zooan ikusi duzue?. etab.), irakasleak animalia horien aurpegia duen kartoi mehea banatuko die, margotu eta maskara gisa ebaki dezaten.

**DON BALTASARREN ANIMALIAK. IRAKASLEAREN KOADERNOA**  
**3. Antzezenaren ondoren egiteko jarduerak.**


Margotuta, ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.



Margotuta, ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.




©TELONCILLO



**DON BALTASARREN ANIMALIAK. IRAKASLEAREN KOADERNOA**  
**3. Antzezpenaren ondoren egiteko jarduerak.**


Margotuta, ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.



©TELONCILLO


**DON BALTASARREN ANIMALIAK. IRAKASLEAREN KOADERNOA**  
**3. Antzezenaren ondoren egiteko jarduerak.**

20




Margotuta, ebakitzeke.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.

Margotuta, ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.



**DON BALTASARREN ANIMALIAK. IRAKASLEAREN KOADERNOA**  
**3. Antzezpenaren ondoren egiteko jarduerak.**

Margotzeko eta ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.










**3. Antzezpenaren ondoren egiteko jarduerak.**

Margotzeko eta ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.




©TELONCILLO






Margotzeko eta ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera

©TELONCILLO



Margotzeko eta ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.

Margotzeko eta ebakitzeko.  
Handitu edo txikitu, beharren arabera.




Beste aukera bat animalia horiek balira bezala makillatzea da, taldeko guraso batzuen laguntzarekin, adibidez. Hurrei izugarri gustatzen zaien baliabidea da.

- Keinuak, taldea eta Don Baltasarren korua.
  1. Irakasleek maskara janzten dutenean edo hautatutako animalia gisa makillatuta daudenean, animalia horiek izango dira, animalia bakoitzaren keinuak deskubritu beharko dituzte, antzezenean aktoreetako batek zaldia aurkezten digunean egiten duen bezala. Honela lagunduko diegu: *"Bilatu animalia horren ohiko keinu edo mugimendu bat"*, *"azpimarratu animalia horren zerbait: tronpa, moko, hegalak, lepoa..."*, *"saiatu animalia horren ibiltzeko era, soinuak eta abar imitatzen"*, etab.
  1. Haurrak espazioan zehar ibiliko dira pertsonaia sortuz. Beren pertsonaia nolabait karakterizatuta dutela uste denean, animalia berdina taldetan elkartzea proposatuko zaie, eta haien artean jolasten utziko zaie, baldintza batekin: diren animalia horien soinua soilik egin ahal izango dute.
  3. Ondoren, irakasleak denek ezagutzen duten abesti baten hasiera aukeratuko du, eta aukeratutako animalia horien soinua eginez soilik abesteko eskatuko dio talde bakoitzari.
    - a) Biribilean, talde bakoitza erdira irtengo da, eta bere soinua bereziarekin abestuko du.
    - b) Guztiek ezagutzen duten doinu bat aukeratuko da (adibidez, "zorionak zuri"), eta denek batera abestuko dute, bakoitzak bere soinua eginez, hainbat ahotsetako orkestra bat osatuko balute bezala.
    - c) Bukatzeko, guztiek batera abestuko dute bala-bala esanez soilik.

- Dantza

Eta, azkenik, festa handia egingo dugu; musika etnikoa edo dantzatzera bultzatuko dituen musika jarriko da, eta guztiek batera dantzatzeko eskatuko zaie, animaliek beren habitatean egiten duten bezala.



# 4. URRUNAGO JOATEKO

## Antzerkia egingo dugu

### Testuaren irakurketa, soinuen laguntzarekin

Frantziako Ilustrazioko J.J. Rousseau filosofoak honela zioen: *"Hasieran, ez zen izan melodia ez zen beste musikarik, ez eta hitzaren askotariko soinua ez zen beste melodiarik ere. Esatea eta abestea gauza bera zen. Hizkuntza batek ideiak adierazten ditu, hala da, bai; baina sentimenduak edota irudiak adierazteko, horrez gain, erritmoa eta soinua behar ditu, hau da, melodia bat behar du".*

Testu bat modu askotara irakurtzea da testu hori sakon ulertzeko modu bat, eta baita soinuekin lagunduta eraldatzea ere. Haurrak txikiak direnez, oso dibertigarria izango da adierazkortasuna ematea eta soinua jartzea testu honi:

### Testua

"Arratsaldeko zazpiak ziren Seeoneko muinoetan, eta oso bero egiten zuen. Aita Otsoa eguneko atsedenalditik esnatu zen; hazka egin, aho-zabalka aritu, eta hankak luzatu zituen, bata bestearen atzetik, puntetan nabaritzen zuen lo-sentipena kentzeko. Ama Otsoa etzanda zegoen, bere mutur grisarekin lau otsokume ipurtarin eta zalapartari estaliz. Ilargia hasia zen jada bizi ziren haitzuloko ahotik sartzen." (Oihaneko liburua, Ruydard Kipling)

### Prozedura

Irakasleak testua irakurriko du, eta testuan azpimarratuta dauden ekintza edo soinu bakoitza egingo du. Ikasleek imitatu egingo dute, eta haurrek duten sormenarekin, laster hasiko dira beren kasa adierazten.

- Guztiak zutik egongo dira, aretoan zehar, eta irakaslea testuarekin hasiko da:

*"Arratsaldeko zazpiak ziren..., tan* (kanpaiak imitatuz; berehala, guztiak zazpi kanpai "jotzen" hasiko dira)... *oso bero egiten zuen...* (keinuak eginez eta esanez: Hau da beroa!...)

Horrela egingo da gainerako testuarekin: Aita Otsoak bezala hazka egin, aho-zabalka aritu, etab. Ama Otsoa bezala ere etzango dira, otsokumeak imitatuko dituzte, etab.

- Zaharrenek hiruzpalau laguneko taldeak osatuko dituzte, eta testuan azpimarratuta dauden hitzen soinuak eta keinuak prestatuko dituzte; irakaslea irakurtzen ari denean, haiek soinuak egingo dituzte.

Bala-bala, abenturak inprobisatzen.

Aldez aurretik prestatu gabe zerbait egitea da inprobisatzea. Aktoreek asko erabiltzen duten teknika da, antzerki-muntaiak prestatzeko orduan. Bost eta sei urteko haurrak izugarri diberti daitezke jarduera honekin.




**Don Baltasarren animaliak** lanean, elkarrizketa ugari daude txakurraren, katuaren, behiaren, jirafaren eta Don Baltasarren artean.

- Lauko taldetan banatuko dira ikasleak.
- Don Baltasarren animalia batzuekin abentura labur bat asmatzeko eta inprobisazio bat prestatzeko eskatuko zaio talde bakoitzari. Oso erraza izango da, jarraibide hauek betez gero:
  1. *Non gertatuko da zuen abentura?* (Basoan, zirkuan, baserrian, etab.)
  2. *Zer gertatu da?*
  3. *Zer egiten ari zarete?*
  4. *Zu zein izango zara? Eta zu?* (Taldekide bakoitzari galdetuko diogu).
  5. *Nola buka daiteke abentura?*
- Azkenik, guztiak lurrean eseriko dira, publiko gisa, eta talde bakoitzak bere abentura antzetzuko die besteei.

Hiru eta lau urteko haurrekin, inprobisazioa talde osoarekin batera egin daiteke, irakasleak zuzenduta.





## Teloncillo-ren ekoizpena

[www.teloncillo.com](http://www.teloncillo.com) | [teloncillo@teloncillo.com](mailto:teloncillo@teloncillo.com)

Argitaratzailea:

Teatro Teloncillo. Maquina teatral S.L.

Veinte de Febrero, 6, 1º B. 47001 Valladolid

Banatzailea: **Valle Sara eta Marta Pérez**

Tel.: **983 37 90 06** eta **637 539 064 / 065**. Faxe: **983-18 27 06**